

EUSKARAZKO UDALEKUETAN (D EREDUA) PARTE HARTZEAGATIK DIRU- LAGUNTZA DEIALDIA

2016 urtea

Estella-Lizarrako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, euskara hutsez egindako udalekuetan parte hartzea diruz lagunduko du, beti ere, jarraiturik honako

OINARRIAK

LEHENA.- Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honek xedea du eduki ludikoak, kirolekoak eta/edo naturarekin harremanetan egotekoak proposatzen dituzten euskarazko udalekuak, D ereduko ikasleentzat antolatzen direnak, sortzen duen gastua hein batean finantzatzea. Diru-laguntza hauek 2016 urteko aurrekontuko 3350 489001 - "Subv. *Campamentos Euskera*" diru-sailaren kontura joango dira. Xede honetarako, gehienez ere, **2.070 €** erabiliko dira.

1.2. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, ordea:

- a. Txango eta bidaiak.
- b. Udalerrian edo udalerritik hurbil egonda barnetegi erregimena eskatzen ez dutenak.
- c. Salbuespen bezala, betiere ezinbestekak bultzaturik, eskakizun bat edo gehiago ez betetzea galarazten duen arrazoirik balego -adingabearen gaixotasun kroniko edo ezgaitasuna adibidez- Tokiko Gobernu Batzordeak diru-laguntza proposamena onartzea edo ukatzea erabaki ahal izanen du.

BIGARRENA.- Diru-laguntza eskatzeko baldintzak.

2.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eskatu ahaliko dute euskarazko udalekuetarako diru-laguntza:

- a. Lehen Hezkuntzako edo DBHko ikaslea izatea.
- b. D ereduko ikaslea izatea (ikastetxe publiko edo ikastolan euskaraz ikasten dutenak).
- c. Estella-Lizarran erroldatua egotea udalekua irauten duen bitartean eta diru-laguntza eskatu eta ebatzen den bitartean. Lizarran gutxienez ere urtebete erroldaturik egotea deialdia argitaratzen den egunean.

HIRUGARRENA.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Diruz lagunduko dira D eredukoentzako antolatutako euskarazko udalekuak, hau da, etxetik kanpo egonaldietan parte hartzeagatik sortutako gastuak (etxean lo egin gabe).

3.2. Haur/gazte bakoitzak udaleku bakarragatik jaso ahalko du diru-laguntza.

3.3. Udalekuak 5 egun (4 gau) baino gehiago eta 15 egun (14 gau) baino gutxiago iraun beharko du, eta udako oporren garaian garatua izanen da (ekainaren 20tik irailaren 16ra).

LAUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

4.1. Interesatuak beren eskaerak 2016ko irailean 1etik 30era aurkeztu beharko dituzte Lizarrako Udalaren Erregistro Orokorrean (Sorkunde Garbiaren pasealekua 1, 31200, Lizarra) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusirik dauden lekuetarikoko edozeinetan.

Eskaera Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua baimendutako erregistro ofizialetako batean aurkeztu duten pertsonak horren berri eman beharko diote Udalari, eskabideak aurkezteko gehieneko epearen barnean, faxa igorri 948-548232 zenbakira edo telegrama, Lizarrako Udalari zuzendua. Bi baldintzak bete ezean ez da eskaera onartuko.

Dena den, aipatutako epea iragan eta hamar egun naturaleko epean proposamenik jasotzen ez bada, ez da inola ere onartuko.

4.2. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

4.3. Aurkeztutako eskabidea deialdi honetan ezartzen diren baldintzak edo agiriak beteko ez balitu, eskatzaileari, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezinean horiek aurkezteko eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik eginiko ebazpena bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan adierazten duen bezala.

BOSGARRENA.- Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioa.

5.1. Eskabidearekin batera ondoren aipatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztu beharko dira:

- a. Eskatzailearen guraso baten edo legez ordezkatzeko duen tutore baten Nortasun Agiriaren fotokopia.
- b. Familiaren diru-sarrera gordinak adierazten dituen agiria (2015eko errenta aitortzea).
- c. Adinez txikia eskolatuta dagoen ikastetxearen eskolatzeko-agiria, non ikastetxearen izena eta hizkuntza eredu agertuko baitira.



- d. Udalekua antolatzen duen entitateak izenpeturiko dokumentua, non hari buruzko baldintzak –euskarari emandako tratamendua eta helburu linguistikoak, iraupen datak, jardueren egitaraua edo liburuxka, prezioa- eta asistentzia egiaztagiria azaldu behar diren.
- e. Udalekuaren matrikula ordainagiria (banketxeak egindakoa) non kostuaren %100 ordainduta agertuko den.
- f. Diru-laguntza jasotzeko nahi den banku-libretako lehen orriaren fotokopia.

SEIGARRENA.- Eskabideen balorazioa.

6.1. Eskabideak ondoren adierazten den bezala baloratuko dira:

- a. Kontutan hartuko dira familiaren urteko diru-sarrerak gordinak (errenta aitorpeneko 507, 8810 eta 8808 laukitxoetako kopuruen batura ken 708 laukitxoko kopurua) eta familia unitatea osatzen duten pertsonen artean zatitu.
- b. Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitorpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, edo, aitorpena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrera gordinen Zinpeko Aitorpena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriekin frogatu.
- c. Aurreko guztiak aparte, eskatzailearen familiako diru-sarrera errealak frogatzeko, Udalak beharrezkoak baiesten dituen froga-agiri guztiak eska ditzake.

6.2. Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, **125 eurokoa** izanen da eta ondorengo baremo ekonomikoaren arabera banatuko da:

PCE <5.000 €	%60
PCE 5.001 € eta 8.000 € artean	%50
PCE 8.001 € eta 10.000 € artean	%40
PCE 10.001 € eta 15.000 € artean ...	%30
PCE 15.001 € eta 20.000 € artean ...	%20
PCE >20.000 €	%10

6.3. Beken eskaera urte batekoa izanen da, eta ematea baldintzatuta egonen da eskatu duen ariketa ekonomikoan Udalak duen aurrekontua izateari.

6.4. **Edozein kasutan, eta aurrekontu izatearen arabera, Udalak beste irizpide batzuk aplikatuko ditu, behar izanez gero, hala nola eskatzaile kopurua eta bakoitzari egokitutako kopurua, kantitate horren banaketa proportzionala eta bidezkoa egin ahal izateko. Azken hau aplikatuz gero, egokitutako kantitatean moldaketak suerta daiteke.**

ZAZPIGARRENA.- Eskabideen azterketa eta ebazpena.

7.1. Aurkeztutako eskabideak Euskara Zerbitzuak baloratuko ditu, eta honek ebazpen proposamena egiteko ofizioz burutuko ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkoak estimatzen dituen jardunbideak.

7.2. Diru-laguntzak Tokiko Gobernu Batzordearen bidez emanen dira.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpena emateko epea.

8.1. Ebazpena, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean emanen da.

8.2. Epe hori pasatzen bada inolako ebazpenik eman gabe, eskatzaileak eskabidea ezeztatua bezala ulertu ahalko du.

BEDERATZIGARRENA.- Jakinarazpena edo argitaratzea.

9.1. Kontzesio ebazpena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta bertan deialdia, egitaraua eta aurrekontu kreditua zehaztuko da, bai eta onuraduna, emandako kantitatea eta xedea. Ebazpena Estella-Lizarrako Udalaren Iragarki Oholean argitaratuko da.

9.2. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- a. Berraztertze helegitea, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien epaitegiari edo sailari zuzendua.
- c. Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

Estella-Lizarra, 2016ko maiatzaren 16an

ALKATEA
Koldo LEOZ GARCIAINDIA